

# Autokontzeptu fisikoa neurtzeko galdesorta berri baten propietate psikometrikoak: Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI)

Igor Esnaola Etxaniz eta Alfredo Goñi Grandmontagne  
Euskal Herriko Unibertsitatea

Ikerketa honetan Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI) aurkezten da, autokontzeptu fisikoa neurtzeko euskaraz idatzitako galdesorta berri bat. Beste galdesorta batzuek bezala, ingelesez (PSPP) edo gaztelaniaz (CAF), autokontzeptu fisikoaren lau azpidomeinu, hots, *trebetasun fisikoa*, *sasoi fisikoa*, *erakargarritasun fisikoa* eta *indarra* begiztatzen dituen eredu bati jarraitzen dio. Behin betiko bertsioa, 12 eta 86 urte arteko 1.259 subjektuei pasa zitzairen, eta analisi faktorialak lau azpidomeinuetako eredu hau azaldu du gizonezkoen laginean, baina ez emakumezkoenean. Barne-konsistentzia (Cronbach-en alpha) gizonezkoen *autokontzeptu fisiko orokorra* eskalaren  $\alpha = .73$ tik gizonezkoen *indarra* eskalaren  $\alpha = .83$ ra doa. Gizonek emakumeek baino altuago puntuatzen dute eskala guztietan eta kirola egiten dutenak egiten ez dutenak baino hobeto hautematen dira eskala guztietan: *trebetasun fisikoan*, *sasoi fisikoan*, *erakargarritasun fisikoan*, *indarrean*, *autokontzeptu fisiko orokorrean* eta *autokontzeptu orokorrean*.

This article presents the Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI), a new questionnaire in Basque language built, as same as others instruments in English (PSPP) and in Spanish (CAF), from a quadridimensional model: *physical ability*, *physical condition*, *physical attractive* and *strength*. The final version was responded by 1.259 subjects aged between 12 and 86 years old. The factorial analysis show the quadridimensional model of physical self-concept in the male sample but not in the female sample. The reliability indexes (alpha of Cronbach) vary from  $\alpha = .73$  (*physical self-worth* scale in males) to  $\alpha = .83$  (*strength* scale in males). Males score more than females in all the scales and the people that make sport have better physical perception than people that don't in all the AFI's scales: *physical ability*, *physical condition*, *physical attractive*, *strength*, *physical self-worth* and *general self-concept*.

## 1. Sarrera

Autokontzeptuaren ikuskera dimentsiobakar eta globalak, urteetan zehar indarrean mantendu zenak, 70eko hamarkadan ikusmolde dimentsioanitz eta hierarkikoari bidea zabaldu zion. Ikuspegi berri horren eredurik ordezkagarrienaren ustez (Shavelson, Hubner eta Stanton, 1976; Marsh, 1986), autokontzeptu orokorra, autokontzeptu akademikoak eta ez-akademikoak osatuko lukete, eta autokontzeptu ez-akademikoak autokontzeptu soziala, autokontzeptu emozionala eta autokontzeptu fisikoa barneratuko lituzke.

Autokontzeptu fisikoa autokontzeptuaren dimentsioetako bat dugu; neurtzeko duen posibilitateak, bai kontestu formaletan zein kirol eta klinikoetan, interes handia sustatzen du, eta 90eko hamarkadatik aurrera autokontzeptu fisikoa espezifikoki neurtzeko galdesorta berriak sortu dira. Lehenagotik zeuden galdesortek, 80ko hamarkadan sortutako Self-Description Questionnaires (SDQ) izenekoek adibidez (Marsh, Relich eta Smith, 1983; Marsh eta O'Neil, 1984; Marsh eta Shavelson, 1985), autokontzeptu fisikoaren bi eskala barneratzen zituzten, *kirol-trebetasuna* eta *itxura fisikoa*. Bi eskala horiek ez dira faltako ondoren proposatzen diren galdesortetan, baina hala ere, eskala berriak barnesartzen dituzte. Jarraian eskala horien izenei eta kopuruari dagokienez ikus daitezkeen berdintasunak eta desberdintasunak aztertuko ditugu.

Bracken-ek (1992) *trebetasun fisikoa*, *sasoi fisikoa* eta *osasuna* desberdintzen ditu. Marsh-en ikerketa-taldeak (1994), errendimendu fisikoaren test baten emaitzen analisi faktorialean oinarrituz, SDQren bertsio berri bat sortzen du, autokontzeptu fisikoaren galdesorta espezifikoki bat, Physical Self-Description Questionnaire (PSDQ) delakoa, bederatzi eskalaz osatutakoa: *indarra*, *gizentasuna*, *aktibitate fisikoa*, *erresistentzia*, *kirol-trebetasuna*, *koordinazioa*, *osasuna*, *itxura fisikoa* eta *malgutasuna* (Marsh, Richards, Johnson, Roche eta Redmayne, 1994; Tomás, 1998). Fox-en (1988) ereduak, aldiz, hurrengo osagaiak edo azpidomeinuak aurreikusten ditu: *kirol-trebetasuna*, *sasoi fisikoa*, *erakargarritasun fisikoa* eta *indarra*. Eredu teoriko hori Fox eta Corbin-en (1989) Physical Self-Perception Profile (PSPP) deiturikoa osatzeko erreferentzia izan zen, Marsh-en (1997) ustez, autokontzeptu fisikoa neurtzeko azkenengo urteetako galdesorta aipagarriena delarik. Goñi, Ruiz de Azúa eta Liberal-ek (2004) eratutako Cuestionario de Autoconcepto Físico (CAF) izenekoan eredu hori gain hartzen da, baina eskalen izen eta deskripzioan aldaketa txiki batzuk sartuz: *trebetasun fisikoa*, *sasoi fisikoa*, *erakargarritasun fisikoa* eta *indarra*.

Physical Self-Perception Profile (PSPP) ereduaren bidez jasotako datu enpirikoek eredu honen egokitasuna egiaztatu dute. Galdesortaren propietate psikometrikoak Estatu Batuetako ikasle unibertsitarioekin baieztatu ziren hasieran eta geroago nerabe britainiarrekin (Biddle, Page, Ashford, Jennings, Brooke eta Fox, 1993; Page, Ashford, Fox eta Biddle, 1993), aktibitate aerobikoetan parte hartzen zuten emakume estatubatuar helduekin (Sonstroem, Speliotis eta Fava, 1992), Kanadako (Hayes, Crocker eta Kowalski, 1999) eta Turkiako (Asci, Asci eta Zorba, 1999) unibertsitarioekin eta, Espainian, Valentziako (Moreno, 1997) eta Levanteko nerabeekin (Gutiérrez, Moreno eta Sicilia, 1999).

Ikerketa hauek guztiek *ni fisikoaren* pertzepzioak lau azpidomeinuetan antolatzen direla baieztatzen dute; hala ere, gainjarpen bat azaltzen da *erakargarritasun fisikoaren* eskalari emandako erantzunetan eta, teorikoki, maila altuagoan kokatzen den *autokontzeptu fisiko orokorraren* eskalari emandakoetan. Bestalde, *sasoi fisikoa* eta *trebetasun fisikoa* ez dira ikerketa guztietan azpidomeinu independente moduan azaltzen.

Biddle-ren (1993) lanetik lortutako datuek diotenez, Children Physical Self-Perception Profile (C-PSPP) deiturikoa 12 eta 15 urtetako lagin bati aplikatzean, *kirol-trebetasun* eta *sasoi fisikoaren* itemek faktore berebean saturatzen zuten. Moreno-k (1997) Physical Self-Perception Profile (PSPP) ereduaren egitura faktoriala aztertu zuen nerabe valentziarrekin. Datuek zioten *erakargarritasun fisikoak* eta *indarrak* bi faktore independente osatzen zutela, baina *kirol-trebetasun* eta *sasoi fisikoaren* eskaletako itemek faktore bat osatu zuten.

Goñi eta Zulaikak (2000 eta 2001) Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin (10-11 urte), Children and Youth-PSPPren (Whitehead, 1995) euskarazko bertsio aske eta sinplifikatu bat jarri zuten frogan. Galdesortak hainbat subjekturen artean bereizteko eta gorputz-hezkuntzaren curriculumaren barnean sarturik zegoen hezkuntza esku-hartze baten efektu positiboak hautemateko gaitasuna azaldu zuen. Geroxeago, aldiz, beste ikerketa batek (Goñi, Palacios, Zulaika eta Ruiz de Azúa, 2002) CY-PSPPren bertsio literal bat erabiliz, bai euskaraz (N = 454) zein gaztelaniaz (N = 121), lau azpidomeinuko ereduaren espektatiba teorikoak tinkoak zirela azalarazi zuen: baina bestalde, PSPPren bertsio desberdinetan erabiltzen diren itemen formatoa eta edukia aldatzeko egokitasuna ikusi genuen. Horrek, beste hizkuntzetako galdesortak itzuli beharrean, galdesorta berri eta originalak sortzeko nahia eta beharra ekarri zuen. Beraz, lehenengo koadroan azaltzen den legez, autokontzeptu fisikoaren galdesorta batek izan beharreko eskalak eta azpieskalak definitu ziren.

1. TREBETASUN FISIKOA. Kirol-praktikarako gaitasun (“ona naiz”, “gaitasunak ditut”) eta trebetasunen (“trebea naiz”, “iaioa sentitzen naiz”) pertzepzioa; kirolak ikasteko gaitasuna; zihurtasun pertsonala eta kirolen aldeko jarrera.
2. SASOI FISIKOA. Sasoi eta forma fisikoa; erresistentzia eta energia; egoera fisikoarekiko konfiantza.
3. ERAKARGARRITASUN FISIKOA. Itxura fisikoaren pertzepzioa; gorputz-itxurarekiko zihurtasuna eta satisfakzioa.
4. INDARRA. Indartsua ikusi edo sentitzea, pisua altxatzeko kapazitatearekin, indarra eskatzen duten ariketekiko zihurtasuna eta ariketa horiek egitearen aldeko jarrera.
5. AUTOKONTZEPTU FISIKO OROKORRA. Iritzi eta sentsazio positiboak (zoriontasuna, satisfakzioa, harrotasuna eta konfiantza) alderdi fisikoarekiko.
6. AUTOKONTZEPTU OROKORRA. Bakoitzarekiko eta bizitzarekiko satisfakzio-gradu orokorra.

### 1. koadroa. Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketaren eskalak.

Galdesorta, batez ere, lehenengo lau eskalek osatzen dute (*trebetasun fisikoak*, *sasoi fisikoak*, *erakargarritasun fisikoak* eta *indarrak*) eta autokontzeptu fisikoaren azpidomeinuak espezifikoki neurtzen dituztenak dira. Hala ere, *autokontzeptu orokorraren* eskala gehitzen da, konstrukto horren neurketa osagarri baten aukera interesgarria iruditzen zitzaigulako. Halaber, nahiz eta galdesorta batzuk *autokontzeptu fisiko orokorraren* eskala salbuetsi, azpieskala espezifikoen media ateraz, eskala independente bat edukitzea egokia iruditu zitzaigun.

Hortik abiatuta, Cuestionario de Autoconcepto Físico (CAF) delakoa gaztelaniaz (Goñi, Ruiz de Azúa eta Liberal, 2004) eta euskarazko galdesorta sortzen hasi ginen. Helburu horrekin, Esnaolak (2005) 394 subjektuk parte hartu zuten ikerketa batean euskaraz idatzitako item-poltsa baten funtzionamendua frogan jarri zuen. Itemak adierazpenezko forma batean idatzi ziren, batzuk zuzeneko bidean (“kiroletarako trebea naiz”) eta beste batzuk alderantziz (“kiroletarako ez naiz pertsona trebea”). Bertsio bikoitz bat prestatu zen (A eta B), desberdintasun batekin; item guztiak berdinak izanik, bertsio batean zuzenean formulatuta zegoena beste bertsioan alderantziz proposatzen zen; denetara 96 item zeuden, 48 bertsio bakoitzeko (ikus 2. koadroa).

| A bertsioa  | B bertsioa  |
|---|---|
| <b>TREBETASUN FISIKOA</b>   | <b>TREBETASUN FISIKOA</b>   |
| <b>7. Ez naiz kirolari ona</b><br><b>1. Kiroleterako gaitasun onak ditut</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol ezezagun bat lehenengo aldiz egiterakoan beldurra izaten dut ea asmatuko ote dudan</li> <li>• Joko eta kirolak ikustea baino praktikatzea nahiago dut</li> <li>• Kirol-trebetasunetan nire adinekoak baino hobe naiz</li> <li>• Kirol berri bat ikastea kostatzen zaien pertsonetarikoa naiz</li> <li>• Kiroletan pertsona trebea naiz</li> </ul> <b>19. Kirol-jardueretan baldarra ikusten dut neure burua</b>                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kiroletan ona naiz</li> <li>• Kiroleterako ez dut gaitasun egokirik</li> </ul> <b>13. Aurretik inoiz egin ez ditudan kiroletan ondo moldatuko nintzatekeela uste dut</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Joko eta kiroletan parte hartzea baino ikustea nahiago izaten dut</li> <li>• Kirolari gisa neure burua ez dut besteen bezain trebea ikusten</li> </ul> <b>25. Kirol berri bat egiterakoan berehala ikasten duten pertsonetako naiz</b><br><b>31. Kiroletan ez naiz pertsona trebea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol-jardueretan ondo moldatzen naiz</li> </ul> |
| <b>SASOI FISIKOA</b>  | <b>SASOI FISIKOA</b>  |
| <b>20. Erresistentzia fisiko eskasa (txarra) dut</b><br><b>2. Ariketa fisiko gogorretarako erresistentzia ona dut</b><br><b>32. Ez nago sasoi fisiko onean</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nahiz eta ariketa fisiko gogorra izan ez naiz beldurtzen</li> </ul> <b>26. Denbora luze jardun dezaket korrika eta kirola egiten</b><br><b>8. Korrika moduko ariketetan berehala atsedena hartu behar izaten dut</b><br><b>14. Energia fisiko handia dut</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Korrika egitea eta dena emanda jolastea ez dut gustuko</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erresistentzia fisiko handia dut eta ez naiz berehala nekatzen</li> <li>• Ariketa fisiko gogorretan azkar nekatzen naiz eta erritmoa mantsotu behar dut</li> <li>• Sasoi fisiko onean nago</li> <li>• Ahal badut saiatzen naiz ariketa gogorrik ez egiten</li> <li>• Korrika eta kirola egitea azkar uzten dut nekatu egiten naizelako</li> <li>• Korrika moduko ariketetan luze irau dezaket</li> <li>• Ez daukat energia fisiko handirik</li> <li>• Korrika egin eta dena emanda jolastea gustatzen zait</li> </ul>  |
| <b>ERAKARGARRITASUN FISIKOA</b>   | <b>ERAKARGARRITASUN FISIKOA</b>   |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gehienekin konparatuz gero, nire gorputza ez zait polita iruditzen</li> <li>• Erraza da niretzako gorputza itxura onean mantentzea</li> <li>• Nahiago nuke nire gorputz-tipo edo silueta hobe izatea</li> <li>• Gorputz ederra/polita dudanez, jendeak begiratu egiten dit</li> <li>• Nire gorputzak duen itxura fisikoaz harro (pozik) nago</li> <li>• Nire gorputz-irudia ez zait gustatzen</li> <li>• Polita naiz</li> <li>• Nire aurpegi eta gorputza gustukoak ditut</li> </ul>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gehienekin konparatuz gero nire gorputza polita da</li> </ul> <b>9. Zailtasunak ditut nire gorputza itxura onean mantentzeko</b><br><b>15. Nire gorputz-irudiarekin pozik sentitzen naiz</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gorputz polita izanagatik, jendeak gutxitan begiratzen dit</li> </ul> <b>21. Ez nago pozik nire gorputzak duen itxurarekin</b><br><b>27. Nire itxura fisikoarekin gustura nago</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Itusia naiz</li> </ul> <b>33. Ez zaizkit nire aurpegi eta gorputza gustatzen</b>   |

## 2. koadroa. Hasierako fasean erabilitako itemak.

| INDARRA  | INDARRA  |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Nire adinekoek baino indar gutxiago dut</li> <li>Besteak baino pisu gehiago jaso dezaket</li> </ul> <p><b>10. Indarra behar den ekintzetan ez naiz seguru sentitzen</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Indarra duen norbait behar denean ausartzen den lehenengoetarikoa izaten naiz</li> </ul> <p><b>16. Indarra behar den ekintzetan nabarmentzen naiz</b></p> <p><b>22. Nire adinekoekin konparatuz indar gutxiago daukat</b></p> <p><b>28. Indartsua naiz</b></p> <p><b>34. Neure burua ez dut ikusten indar handia dutenen taldean</b></p> | <p><b>4. Nire adinekoek baino indar handiagoa dut</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Besteek adina pisu ezin dut jaso</li> <li>Indarra eskatzen duten jarduerak egiteko gai naiz</li> <li>Indarra duen norbait behar denean nahiago dut neure burua ez eskaintzea</li> <li>Indarra behar den ekintzetan ez naiz besteak baino hobea</li> <li>Nire adinekoak baino indartsuagoa naiz</li> <li>Ez naiz indartsua</li> <li>Indar handia dutenen taldean ikusten dut neure burua</li> </ul>                  |
| AUTOKONTZEPTU FISIKO OROKORRA  | AUTOKONTZEPTU FISIKO OROKORRA  |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Fisikoki ez naiz ondo sentitzen</li> <li>Fisikoki dudan gaitasunaz pozik nago</li> <li>Fisikoki ez nago gustura neure buruarekin</li> <li>Fisikoki horrelakoa izateaz pozik nago</li> <li>Nire gorputzak sentipen positiboak transmititzen dizkit</li> <li>Fisikoki ez naiz gustura sentitzen</li> <li>Nik dudan arlorik onena fisikoa da</li> <li>Fisikoki besteak baino okerrago sentitzen naiz</li> </ul>  | <p><b>5. Fisikoki ondo sentitzen naiz</b></p> <p><b>11. Ez nago pozik fisikoki dudan gaitasunaz</b></p> <p><b>17. Fisikoki gustura sentitzen naiz</b></p> <p><b>23. Ez nago pozik fisikoki nolakoa naizen ikusita</b></p> <p><b>35. Nire gorputzak ez dit sentipen positiborik transmititzen</b></p> <p><b>29. Fisikoki gustura sentitzen naiz nire buruarekin</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Nik dudan arlorik onena ez da fisikoa</li> <li>Fisikoki besteak baino hobeto sentitzen naiz</li> </ul> |
| AUTOKONTZEPTU OROKORRA   | AUTOKONTZEPTU OROKORRA   |
| <p><b>12. Ez nago pozik neure buruarekin</b></p> <p><b>6. Zorionsu sentitzen naiz</b></p> <p><b>24. Nire bizitzarekin egiten ari naizena ez zait gustatzen</b></p> <p><b>18. Nire izateko modua gustukoa dut</b></p> <p><b>30. Nire izateko moduaz zorionsu sentitzen naiz</b></p> <p><b>36. Neure buruarekin ez nago gustura aspaldian</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Pertsona bezala gaitasun dezente ditut</li> <li>Gauza gutxitan naiz ona</li> </ul>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Neure buruarekin gustura sentitzen naiz</li> <li>Ez naiz zorionsu sentitzen</li> <li>Nire bizitzarekin egiten ari naizena gustatzen zait</li> <li>Ez nago gustura (pozik) nire izaeraz</li> <li>Beste modu batekoa izatea gustatuko litzaidake</li> <li>Gauzak ondo egiten ari naiz</li> <li>Pertsona bezala ez dut gaitasun askorik</li> <li>Nire gustuko gauzetan ona naiz</li> </ul>   |

Analisi estatistiko desberdinak (Esnaola, 2005) aztertu ondoren, 96 itemetatik 2. koadroan beltzez adierazitako itemak aukeratu ziren (eskala bakoitzeko 6) beraien propietate psikometrikoak aztertzeko (baliotasun faktoriala eta fidagarritasuna). Horretarako generoa eta kirol-praktika aurreko ikerketetan erabili diren irizpide garrantzitsuenetakoak dira.

Generoari dagokionez, autokontzeptu fisikoaren galdesortetan azaldutako datuek diote desberdintasunek gizonen alde egiten dutela (De Gracia, Marcó, Fernández eta Juan, 1999; Garduño eta Ramírez, 2001; Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodríguez, 2004; Klomsten, Skaalvik eta Espnes, 2004; Pastor, 1998); hau da, gizezkoek emakumezkoek baino pertzepzio hobea izaten dute. Bestalde, kirol-praktika askotan erabili izan da autokontzeptu fisikoaren neurketekin korrelazionatzeko irizpide-baliotasun moduan; datuek diote (Fox eta Corbin, 1989; Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodríguez, 2004; Klomsten *et al.*, 2004; Marsh, 1997; Moreno, 1997), normalean korrelazio positiboak gertatzen direla, hau da, kirola egiten dutenak egiten ez dutenak, edo noizbehinka egiten dutenak baino hobeto hautematen direla, batez ere *trebetasun fisiko* eta *saso* fisikoaren azpidomeinuetan. Kasuren

batean (Bakker, 1988), alabaina, aktibitate fisikoren baten praktikak *autokontzeptu fisiko baxu* edo *gorputz-irudiarekiko insatisfakzioarekin* erlazionatu da.

Ikerketa honek *autokontzeptu fisikoa* neurtzeko euskaraz idatzitako galdesorta berri baten, Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketaren (AFI), propietate psikometrikoak egiaztatzea du helburu nagusizat (fidagarritasuna eta baliotasuna). Helburu konkretuak bi dira: a) Baliotasun faktoriala, hots, AFIn egitura faktorialak hipotetizatutako autokontzeptu fisikoaren lau azpidomeinuko (*trebetasuna, sasoia, erakargarritasuna* eta *indarra*) ereduari erantzuten dion aztertzea; b) Irizpide-baliotasuna; horretarako bi aldagai erabiliko dira, generoa eta kirol-praktika.

## 2. Metodoa

### Parte-hartzaileak

Ikerketa honen bi faseetako parte-hartzaileak hurrengoak izan ziren: lehenengoan, 240 subjektu: 119 nerabe eta 121 ikasle unibertsitario; bigarrean, 1.259 subjektu lau taldetan banaturik: nerabeak (N = 627), gazteak (N = 272), helduak (N = 248) eta zaharrak (N = 112).

### Prozedura

Lehenengo fasean galdesorta esperimentalak aplikatu zen (2. taulan beltzez azaltzen diren itemez osaturikoa). 36 itemetatik (eskala bakoitzeko 6), 18 modu positiboan idatzirik zeuden eta beste 18 modu negatiboan edo alderantzizkoan. Item bakoitza 1etik (Faltsua) 5era (Egia) doan Likert moduko eskala baten arabera puntuatu zen: *Faltsua, Gehienetan faltsua, Batzuetan egia/faltsua, Gehienetan egia, Egia*. Bigarren fasean AFI definitiboak aplikatu zen, eta lehenengo fasean egindako analisi estatistikoaren (fidagarritasuna eta baliotasun faktoriala) ondorioz 36 itemetatik 30era murriztu zen.

### Analisi estatistikoak

Galdesortaren fidagarritasuna, baliotasun faktoriala (dimentsionalitatea) eta irizpide-baliotasuna aztertzeko Windows-erako SPSSren 11.5 bertsioa erabili zen, hain zuzen, osagai nagusien analisia varimax errotazioarekin. Analisi horretarako Fox (1990) eta Fox eta Corbin-en (1989) irizpideari jarraituz, ez ziren bi eskala orokorren erantzunak kontutan hartzen (*autokontzeptu fisiko orokorra* eta *autokontzeptu orokorra*), lau azpidomeinu espezifikoak (*trebetasuna, sasoia, erakargarritasuna* eta *indarra*) baino maila altuago batekoak direlako. Galdesortaren barneko trinkotasuna neurtzeko Cronbach-en alpha kalkulatu zen eta generoaren eta kirol-praktikaren araberrako desberdintasunak aztertzeko bariantza-analisiak egin ziren.

### 3. Emaitzak

a) *Itaunketa experimentalta*. Itaunketa 96 gizonetzok, 13 eta 31 urte artekoek ( $\bar{x}$  : 15 urte;  $\sigma$  : 3.02), eta 144 emakumezok, 13 eta 30 urte artekoek ( $\bar{x}$  : 18 urte;  $\sigma$  : 3.40), bete zuten. Analisi faktoriala egin aurretik KMO eta Bartlett-en esferizidade-frogak egin behar dira. Datuak aztertuz, gizonetzoketan Kaiser-Meyer-Olkin balioa .842 eta Bartlett frogaren esanguratasuna  $p = .000$  izan ziren. Emakumezoketan, berriz, Kaiser-Meyer-Olkin balioa .881 eta Bartlett-en esanguratasuna  $p = .000$  izan ziren. Beraz, analisi faktoriala egiteak zentzua dauka. Osagai nagusien analisiaren emaitzak lehenengo taulan aurkezten dira, ebaketa puntutzat .40 hartu zelarik.

|           | GIZONAK     |             |             |             | EMAKUMEAK   |             |             |             |
|-----------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
|           | Osagaiak    |             |             |             | Osagaiak    |             |             |             |
|           | 1           | 2           | 3           | 4           | 1           | 2           | 3           | 4           |
| 1. itema  | .210        | .434        | .356        | <b>.459</b> | .527        | .140        | .225        | <b>.587</b> |
| 2. itema  | .153        | <b>.724</b> | .208        | .183        | <b>.785</b> | .078        | .109        | .189        |
| 3. itema  | <b>.678</b> | .236        | .239        | .084        | .221        | <b>.789</b> | -.069       | .124        |
| 4. itema  | .151        | .068        | <b>.798</b> | .025        | .048        | -.069       | <b>.697</b> | .281        |
| 7. itema  | .126        | .509        | .281        | <b>.606</b> | <b>.667</b> | .135        | .109        | .533        |
| 8. itema  | .213        | <b>.715</b> | -.047       | .093        | <b>.816</b> | .056        | .015        | .032        |
| 9. itema  | <b>.521</b> | .322        | -.141       | -.049       | .350        | <b>.574</b> | -.100       | -.173       |
| 10. itema | .074        | -.089       | <b>.664</b> | .231        | .256        | -.005       | <b>.616</b> | -.125       |
| 13. itema | .050        | .002        | .044        | <b>.726</b> | .277        | -.009       | .073        | <b>.737</b> |
| 14. itema | .174        | <b>.401</b> | .327        | .275        | <b>.496</b> | .196        | .371        | .312        |
| 15. itema | <b>.868</b> | .124        | .174        | .107        | .162        | <b>.874</b> | -.028       | .124        |
| 16. itema | .054        | .103        | <b>.834</b> | -.081       | .037        | -.162       | <b>.775</b> | .251        |
| 19. itema | .299        | .503        | .051        | <b>.597</b> | <b>.614</b> | .196        | .173        | .496        |
| 20. itema | .163        | <b>.774</b> | .016        | .302        | <b>.782</b> | .144        | .122        | .111        |
| 21. itema | <b>.867</b> | .265        | .078        | .135        | .038        | <b>.922</b> | -.024       | -.007       |
| 22. itema | .023        | -.053       | <b>.806</b> | .036        | .134        | .053        | <b>.684</b> | -.193       |
| 25. itema | -.017       | .090        | .054        | <b>.777</b> | .184        | .026        | .156        | <b>.721</b> |
| 26. itema | .159        | <b>.824</b> | -.098       | .020        | <b>.791</b> | .059        | .064        | .209        |
| 27. itema | <b>.851</b> | .236        | .175        | .060        | .085        | <b>.952</b> | .003        | .031        |
| 28. itema | .134        | .013        | <b>.866</b> | .083        | .021        | .018        | <b>.846</b> | .202        |
| 31. itema | .318        | .435        | .130        | <b>.677</b> | <b>.628</b> | .123        | .160        | .548        |
| 32. itema | .508        | <b>.668</b> | .115        | .114        | <b>.659</b> | .366        | .189        | .151        |
| 33. itema | <b>.741</b> | .001        | .030        | .162        | .022        | <b>.893</b> | .118        | .084        |
| 34. itema | .070        | .198        | <b>.644</b> | .197        | .108        | .057        | <b>.756</b> | .214        |

#### 1. taula. Galdesorta experimentalaren analisi faktoriala (gizon eta emakumeetan).

Gizonetzokoen laginean, analisi faktorialaren emaitzek hipotetizatutako lau domeinuekin egokitasun osoa erakusten dute, eskala bakoitzeko 6 itemak lau osagai independenteetan saturatuz. Emakumezoketan, berriz, emaitzak ez zaizkie espektatibei moldatzen. Bigarren faktorea *erakargarritasunaren* eskalako 6 itemek osatzen dute eta hirugarren faktorea *indarraren* 6 itemez osatua dago. Baina bestalde, *trebetasun* eta *sasoi fisikoaren* eskaletako itemak dagozkien osagaiekin ez dira erabat moldatzen. Horrela, lehenengo faktorea *sasoi fisikoaren* eskala osatzen duten 6 itemez aparte, beste 3 itemez osatua dago (7.: “ez naiz kirolari ona”; 19.: “kirol-jardueretan baldarra ikusten dut neure burua”; eta 31.: “kiroletan ez naiz pertsona trebea”). Hiru item horiek *trebetasun fisikoaren* eskalari dagozkio. Hiru item horiek 4. faktorean ere altu saturatzen dute, eta azkenengo faktore hori *trebetasun fisikoari* dagozkion hiru itemez osatuta gelditzen da. Emaitza hauek

erakusten dute emakumeetan *erakargarritasun* eta *indarraren* eskalak erraz identifikatzen direla baina *trebetasun* eta *sasoi fisikoari* dagozkien itemak erraztasun berdinarekin ez direla desberdintzen erakusten dute ere.

Gizonezkoen lau osagaiak bariantzaren % 64.46 azaltzen dute, lehenengo faktoreak % 34.53, bigarren faktoreak % 14.37, hirugarren faktoreak % 9.65 eta laugarren faktoreak % 5.92; emakumezkoetan, berriz, lau osagaiak bariantzaren % 67.17 azaltzen dute, lehenengo faktoreak % 33.94, bigarren faktoreak % 17.36, hirugarren faktoreak % 10.57 eta laugarren faktoreak % 5.39. Bigarren taulan galdesorta esperimentalaren eskalen fidagarritasun-indizeak jasotzen dira (Cronbach-en alpha) .

|                               | Cronbach-en alpha |           |
|-------------------------------|-------------------|-----------|
|                               | GIZONAK           | EMAKUMEAK |
| Trebetasun fisikoa            | .77               | .73       |
| Sasoi fisikoa                 | .76               | .72       |
| Erakargarritasun fisikoa      | .73               | .69       |
| Indarra                       | .84               | .79       |
| Autokontzeptu fisiko orokorra | .71               | .66       |
| Autokontzeptu orokorra        | .81               | .74       |
| GALDESORTAK                   | .80               | .76       |

2. taula. Galdesorta esperimentalaren eskalen fidagarritasuna.

Nahiz eta fidagarritasun-indizeak altuak izan, eskala bakoitzetik item bat ezabatzeko erabakia hartu zen (sei item denetara: 13, 14, 9, 10, 35 eta 24.). Item horiek beren eskaletan fidagarritasun baxuena erakusten zuten, eta bestalde, beraien eduki eta erredakzioari buruz galdesorta bete zuten subjektuen artean duda gehien pizten zituztenak ziren. Subjektuen iritzia ere kontuan hartu ziren, galdesorta oso errepikakorra eta luzea zela esaten zutelarik. Beraz, azkenean itaunketa 30 itemez osatuta gelditzen da.

b) *Galdesorta definitiboa*. AFIren azkenengo erredakzioa 3. taulan azaltzen da.

- |  |
|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Kiroletarako gaitasun onak ditut (TF)</li> <li>2. Ariketa fisiko gogorretarako erresistentzia ona dut (SF)</li> <li>3. Gehienekin konparatuz gero, nire gorputza polita da (EF)</li> <li>4. Nire adinekoek baino indar handiagoa dut (I)</li> <li>5. Oro har, fisikoki ondo sentitzen naiz (AFO)</li> <li>6. Zoriontsu sentitzen naiz (AO)</li> <li>7. Ez naiz kirolari trebea (TF)</li> <li>8. Korrika moduko ariketetan berehala atsedena hartu behar izaten dut (SF)</li> <li>9. Ez zaizkit nire aurpegia eta gorputza gustatzen (EF)</li> <li>10. Neure burua ez dut ikusten indar handia dutenen taldean (I)</li> <li>11. Ez nago pozik fisikoki dudak gaitasunaz (AFO)</li> <li>12. Ez nago pozik neure buruarekin (AO)</li> <li>13. Kirol berri bat egiterakoan berehala ikasten duten pertsonetarikoa naiz (TF)</li> <li>14. Denbora luze jardun dezaket korrika eta kirola egiten (SF)</li> <li>15. Nire gorputz-irudiarekin pozik sentitzen naiz (EF)</li> <li>16. Indarra behar den ekintzetan nabarmentzen naiz (I)</li> <li>17. Fisikoki gustura sentitzen naiz (AFO)</li> <li>18. Nire izateko modua gustukoa dut (AO)</li> <li>19. Kirol-jardueretan baldarra ikusten dut neure burua (TF)</li> </ol> |
|--|



|   |
|---|
| 20. Erresistentzia fisiko eskasa (txarra) dut (SF)  |
| 21. Ez nago pozik nire gorputzak duen itxurarekin (EF)  |
| 22. Neure adinekoekin konparatuz gero, indar gutxiago daukat (I)  |
| 23. Ez nago pozik fisikoki nolakoa naizen ikusita (AFO)   |
| 24. Nire buruarekin ez nago gustura aspaldian (AO)  |
| 25. Kiroletan ez naiz pertsona trebea (TF)  |
| 26. Ez nago sasoi fisiko (forma) onean (SF)   |
| 27. Nire itxura fisikoarekin gustura nago (EF)  |
| 28. Indartsua naiz (I)  |
| 29. Fisikoki gustura sentitzen naiz neure buruarekin (AFO)  |
| 30. Nire izateko moduaz zoriontsu sentitzen naiz (AO)   |
| <i>Zuzenean idatzitako itemak (bost erantzun posibleen balioa: 1/2/3/4/5) =</i><br>1, 2, 3, 4, 5, 6, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 27, 28, 29 eta 30.                     |
| <i>Alderantziz idatzitako itemak (bost erantzun posibleen balioa: 5/4/3/2/1) =</i><br>7, 8, 9, 10, 11, 12, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25 eta 26.                       |
| <i>Erantzun posibleak: Faltsua, Gehienetan faltsua, Batzuetan egia/faltsua, Gehienetan egia, Egia.</i>  |
| <i>Eskalak:</i> TF: Trebetasun fisikoa; SF: Sasoi fisikoa; EF: Erakargarritasun fisikoa; I: Indarra; AFO: Autokontzeptu fisiko orokorra; AO: Autokontzeptu orokorra |

### 3. koadroa. Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketaren (AFI) item eta eskalak.

Galdesorta 557 gizonezko, 12 eta 84 urte artekoek ( $\bar{x}$ : 25 urte;  $\sigma$ : 15.30), eta 702 emakumezko, 12 eta 86 urte artekoek ( $\bar{x}$ : 27 urte;  $\sigma$ : 16.59) bete zuten. KMO eta Bartlett-en esferizidade-frogen datuek analisi faktoriala egitea zentzua zuela erakusten zuten. Datuak aztertuz, gizonezkoetan Kaiser-Meyer-Olkin balioa .904 eta Bartlett frogaren esanguratasuna  $p = .000$  izan ziren. Emakumezkoetan, berriz, Kaiser-Meyer-Olkin balioa .922 eta Bartlett-en esanguratasuna  $p = .000$  izan ziren. Hirugarren taulan lau azpieskala ezpezifikoei buruzko analisi faktoriala azaltzen da, ebaketa-puntutzat .40 hartu zelarik.

|                  | GIZONAK     |             |             | EMAKUMEAK   |             |             |             |
|------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
|                  | Osagaiak    |             |             | Osagaiak    |             |             |             |
|                  | 1           | 2           | 3           | 1           | 2           | 3           |             |
| <b>1. itema</b>  | .497        | .101        | .142        | <b>.668</b> | <b>.820</b> | .164        | .161        |
| <b>2. itema</b>  | <b>.809</b> | .095        | .147        | .258        | <b>.758</b> | .111        | .219        |
| <b>3. itema</b>  | .229        | <b>.540</b> | .200        | .012        | .167        | <b>.736</b> | .051        |
| <b>4. itema</b>  | .090        | .067        | <b>.821</b> | .041        | .126        | .083        | <b>.775</b> |
| <b>7. itema</b>  | .469        | .172        | .098        | <b>.649</b> | <b>.812</b> | .069        | .121        |
| <b>8. itema</b>  | <b>.774</b> | .087        | .006        | .235        | <b>.763</b> | -.063       | .058        |
| <b>9. itema</b>  | -.001       | <b>.776</b> | .084        | .173        | .059        | <b>.832</b> | .097        |
| <b>10. itema</b> | .075        | .181        | <b>.639</b> | .238        | .344        | .146        | <b>.594</b> |
| <b>13. itema</b> | .143        | .057        | .144        | <b>.772</b> | <b>.594</b> | .044        | .189        |
| <b>14. itema</b> | <b>.754</b> | .088        | .092        | .331        | <b>.788</b> | -.008       | .086        |
| <b>15. itema</b> | .158        | <b>.844</b> | .047        | .045        | .093        | <b>.894</b> | .061        |
| <b>16. itema</b> | .122        | .003        | <b>.809</b> | .059        | .222        | -.099       | <b>.748</b> |
| <b>19. itema</b> | .319        | .215        | .099        | <b>.702</b> | <b>.753</b> | .128        | .124        |
| <b>20. itema</b> | <b>.779</b> | .212        | .085        | .180        | <b>.742</b> | .163        | .191        |
| <b>21. itema</b> | .129        | <b>.823</b> | .046        | .181        | .100        | <b>.881</b> | .047        |
| <b>22. itema</b> | .034        | .091        | <b>.720</b> | .042        | .077        | .165        | <b>.672</b> |
| <b>25. itema</b> | .393        | .131        | .137        | <b>.770</b> | <b>.838</b> | .159        | .189        |
| <b>26. itema</b> | <b>.615</b> | .307        | .118        | .276        | <b>.623</b> | .346        | .154        |
| <b>27. itema</b> | .146        | <b>.830</b> | .058        | .093        | .111        | <b>.892</b> | .110        |
| <b>28. itema</b> | .061        | .075        | <b>.864</b> | .137        | .182        | .072        | <b>.837</b> |

3. taula. AFIren analisi faktoriala (gizon eta emakumeak).

Gizonezkoen laginaren analisi faktorialaren emaitzak espero zitekeenari moldatzen zaizkio; lau faktore azaltzen dira, bakoitza 5 itenez osatuta, eta lau domeinu espezifikoak neurtzeko erabilitakoekin guztiz egokitzen direnak: *sasoi fisikoa* (lehenengo osagaia), *erakargarritasun fisikoa* (bigarrena), *indarra* (hirugarrena) eta *trebetasun fisikoa* (laugarrena). Emaidza hauek baieztatzen dute autokontzeptu fisikoaren barneko egiturari buruzko hipotesia.

Emakumezkoen kasuan, berriz, analisi faktorialak hiru osagai erakusten ditu. *Erakargarritasun fisikoa* (bigarren faktorea) eta *indarra* (hirugarren faktorea) neurtzeko erabilitako itemek oso ondo saturatzen dute, bakoitzak bere osagaian. Baina, *trebetasun fisikoa* eta *sasoi fisikoa* neurtzeko erabilitako item guztiek faktore bakar bat osatzen dute (lehenengoa). Espero zitekeenaren kontra, emakumezkoen laginean bi eskala horiek osatzen dituzten itemek ez dute faktore independenterik osatzen, faktore bakar bat baizik.

Gizonezkoen lau osagaiak bariantzaren % 66.12 azaltzen dute; lehenengo faktoreak % 36.06, bigarren faktoreak % 13.09, hirugarren faktoreak % 11.81 eta laugarren faktoreak % 5.14; emakumezkoen kasuan, hiru osagaiak bariantzaren % 64.06 azaltzen dute; lehenengo faktoreak % 37.29, bigarren faktoreak % 16.38 eta hirugarren faktoreak % 10.38. Laugarren taulan fidagarritasunaren analisisia aurkezten da; barneko trinkotasunak, Cronbach-en alpha-ren bidez neurtuta, oso indize egokiak erakusten ditu ikus daitekeenez. Aipatu behar da, emakumezkoen kasuan, analisi faktorialak hiru faktore azaldu zituenez, fidagarritasun-indizeak aztertzean *trebetasun fisiko* eta *sasoi fisikoaren* itemak eskala bakar batean elkartu zirela.

|                               | Cronbach-en alpha |           |
|-------------------------------|-------------------|-----------|
|                               | GIZONAK           | EMAKUMEAK |
| Trebetasun fisikoa            | .77               | .80       |
| Sasoi fisikoa                 | .77               |           |
| Erakargarritasun fisikoa      | .76               | .76       |
| Indarra                       | .83               | .80       |
| Autokontzeptu fisiko orokorra | .73               | .74       |
| Autokontzeptu orokorra        | .79               | .78       |
| GALDESORTAK                   | .81               | .80       |

4. taula. AFiren eskalen fidagarritasuna.

d) *Irizpide-baliotasuna*. Kirol-praktikari dagokionez, subjektuak lau taldetan banatu ziren: kirolik egiten ez zutenak (N = 151), noizean behin egiten zutenak (N = 310), astean 1-3 egunen artean egiten zutenak (N = 424), eta astean 3 egun baino gehiagotan egiten zutenak (N = 374). Homozedastizitate, normaltasun eta independentziaren azterketak egin ondoren, AFiren eskalaren eta kirol-praktikaren arteko erlazioak aztertzeko Kruskal-Wallis frogara erabili zen, eskalak ez baitzituen baldintza parametrikokoak betetzen. Talde bakoitzaren media eta desbiazio tipikoak 5. taulan ikusi daitezke.

|                                      |                           | <b>Ez du egiten</b> | <b>Noiz-behinka</b> | <b>Astean 1-3 aldiz</b> | <b>Astean 3 aldiz baino gehiago</b> |
|--------------------------------------|---------------------------|---------------------|---------------------|-------------------------|-------------------------------------|
| <b>Trebetasun fisikoa</b>            | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 11.79<br>(4.742)    | 15.70<br>(4.868)    | 18.16<br>(4.654)        | 19.83<br>(4.651)                    |
| <b>Sasoi fisikoa</b>                 | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 10.24<br>(4.000)    | 13.39<br>(4.640)    | 16.31<br>(4.859)        | 18.94<br>(4.593)                    |
| <b>Erakargarritasun fisikoa</b>      | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 16.74<br>(5.235)    | 16.80<br>(4.947)    | 17.42<br>(4.965)        | 18.00<br>(4.789)                    |
| <b>Indarra</b>                       | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 12.83<br>(4.835)    | 13.50<br>(4.606)    | 14.83<br>(4.255)        | 15.95<br>(4.764)                    |
| <b>Autokontzeptu fisiko orokorra</b> | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 16.87<br>(5.526)    | 17.44<br>(4.991)    | 18.82<br>(4.807)        | 19.76<br>(4.573)                    |
| <b>Autokontzeptu orokorra</b>        | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 19.79<br>(4.326)    | 20.05<br>(3.734)    | 20.74<br>(3.777)        | 20.92<br>(3.511)                    |

**5. taula. AFiren eskalen puntuazioa eta eta kirol-praktika.**

Analisi estatistikoek taldeen arteko desberdintasunak esanguratsuak direla erakusten dute: *trebetasun fisikoa*  $\chi^2_{(3)} = 275.322$ ;  $p = .001$ ; *sasoi fisikoa*  $\chi^2_{(3)} = 341.635$ ;  $p = .001$ ; *erakargarritasun fisikoa*  $\chi^2_{(3)} = 14.492$ ;  $p = .002$ ; *indarra*  $\chi^2_{(3)} = 70.075$ ;  $p = .001$ ; *autokontzeptu fisiko orokorra*  $\chi^2_{(3)} = 57.590$ ;  $p = .001$ ; eta *autokontzeptu orokorra*  $\chi^2_{(3)} = 14.892$ ;  $p = .002$ . Gainera, puntuazioak progresiboki handitzen doaz, kirola egiten ez dutenen taldetik hasita kirola astean 3 egun baino gehiagotan egiten dutenen talderaino.

AFI 702 emakumek eta 557 gizonak bete zuten. Generoari buruzko emaitzak aztertzeko, Mann-Whitney froga erabili zen eskalak ez baitzituen baldintza pametrikoak betetzen. Genero bakoitzaren media eta desbiazio tipikoak 6. taulan erakusten dira.

|                                      |                           | <b>Emakumeak</b> | <b>Gizonak</b>   |
|--------------------------------------|---------------------------|------------------|------------------|
| <b>Trebetasun fisikoa</b>            | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 16.10<br>(5.396) | 18.84<br>(4.858) |
| <b>Sasoi fisikoa</b>                 | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 14.13<br>(5.190) | 17.50<br>(5.145) |
| <b>Erakargarritasun fisikoa</b>      | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 16.52<br>(5.287) | 18.41<br>(4.306) |
| <b>Indarra</b>                       | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 13.69<br>(4.575) | 15.73<br>(4.611) |
| <b>Autokontzeptu fisiko orokorra</b> | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 17.52<br>(5.210) | 19.78<br>(4.377) |
| <b>Autokontzeptu orokorra</b>        | $\bar{x}$<br>( $\sigma$ ) | 20.06<br>(3.973) | 21.08<br>(3.446) |

**6. taula. AFiren eskalen puntuazioa generoaren arabera.**

Gizonezkoen emaitzak eskala guztietan emakumezkoenak baino esanguratsuki hobeak dira: *trebetasun fisikoa*  $z_{(1248)} = -9.474$ ;  $p = .001$ ; *sasoi fisikoa*  $z_{(1248)} = -10.992$ ;  $p = .001$ ; *erakargarritasun fisikoa*  $z_{(1251)} = -6.426$ ;  $p = .001$ ; *indarra*  $z_{(1251)} = -7.628$ ;  $p = .001$ ; *autokontzeptu fisiko orokorra*  $z_{(1250)} = -7.928$ ;  $p = .001$ ; eta *autokontzeptu orokorra*  $z_{(1251)} = -4.482$ ;  $p = .001$ .

#### 4. Eztabaida

Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI) ez da beste hizkuntzetatik itzulitako galdesorta bat, ondo aztertutako itemen erredakzio- eta selekzio-prozesu zaindu batetik eratorritako tresna baizik, enpirikoki egiaztatuz euskaraz hitz egiten duten subjektuek nola interpretatzen dituzten. Azkenengo produktua galdesorta independente bat da, nahiz eta beste itaunketa batzuen ereduari jarraitu, adibidez Fox eta Corbin-en (1989) PSPP, edo gaztelaniaz Goñi, Ruiz de Azúa eta Liberal-en (2004) CAF erduei.

AFIren ezaugarri psikometrikoak, fidagarritasuna eta baliotasun faktoriala esparru honetan onartuak eta erabiltzen diren galdesorten antzekoak izan dira. Beraz, emaitza hauek erakutsi dute galdesorta hau hezkuntzan, diagnostikorako edo ikerketa-lanetan erabiltzeko baliagarria dela.

Ikerketa honetan, kalitatezko galdesorta bat sortzeaz gain, autokontzeptu fisikoari buruzko ezagutzan aurreratu nahi genuen, lehenengo barneko egitura aztertuz. Argi ikusi da, autokontzeptu fisikoaren lau azpidomeinuko egitura partzialki egiaztatu dela (gizonezkoen laginean), emakumezkoetan hiru faktore desberdinu direlako (*erakargarritasuna*, *indarra* eta *trebetasunaren* eta *sasoiaren* arteko nahasketa bat). *Erakargarritasun* eta *indarraren* itemak modu independentean azaldu dira, baina *trebetasun* eta *sasoi fisikoaren* itemek faktore bakar batean saturatu dute.

Informazio honek orain arte ezagututakoa osatzen du, bi azpidomeinu hauek nerabezeroan eta nerabezero aurretik ez eze (Moreno, 1997; Biddle *et al.*, 1993), ikerketa honetako emakumezkoen laginean ere nahasten baitira. Hala ere, gizonezkoen laginean desberdintasuna argia da. Datu hauek interpretatuz badirudi gizonek egiten dituzten kirol edo aktibitate fisikoetan (baloiarekin edo pilotekin jolastutakoak) "trebetasunak" edo "sasoi fisikoan" egotea errazago desberdinu daitezkeela. Desberdintasun hori emakumezkoen aktibitate ohikoenean (jardun aerobikoan) zailagoa izan daiteke. Baina baieztapen hau ebidentzia enpirikoarekin kontrastatu beharko litzateke.

Generoari buruzko datuei dagokienez, AFIk neurtutako autokontzeptu fisikoaren domeinu guztietan gizonezkoek emakumezkoek baino emaitza garaiagoak azaldu dituzte. Datu horiek aurretik ezagututakoa baieztatzen dute (De Gracia *et al.*, 1999; Garduño eta Ramírez, 2001; Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodríguez, 2004; Klomsten *et al.*, 2004; Pastor, 1998), eta beste neurketa kontrastatu batzuekin bat egitean gure galdesortaren baliotasun-indize bat aportatzen dute. Baina, mereziko luke generoaren aldagaia zehaztasun handiagoarekin kontrolatzeko ikerketak diseinatzea, zentzua baitu eta gerta daiteke beste aldagai batzuekin konbinatuz gero (adin handiagoak, kirol-praktika, bizitza-ohitura osasungarriak...), gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak horren handiak ez izatea, behintzat, ez azpidomeinu guztietan.

Azkenik, lan honetan, kirol-praktikaren eta autokontzeptu fisikoaren ikuspegi dimentsioanitz baten artean egon daitezkeen erlazioak aztertu dira. *Trebetasun fisikoa* eta *sasoi fisikoa* kirol-praktikarekin gehienetan erkiditzen diren azpidomeinuak izan dira (Fox eta Corbin, 1989; Marsh, 1997; Moreno, 1997); hau

da, kirola egiten dutenak egiten ez dutenak baino hobeto hautematen direla egiaztatu da (Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodríguez., 2004; Klomsten *et al.*, 2004). Jasotako datuek AFIren eskala guztietan desberdintasun estatistikoki esanguratsuak egon direla erakusten dute: *trebetasun fisikoa, sasoi fisikoa, erakargarritasun fisikoa, indarra, autokontzeptu fisiko orokorra eta autokontzeptu orokorra*. Progresio argi bat ikusten da; izan ere, zenbat eta kirol-praktikaren maiztasuna handiagoa izan, autokontzeptu fisikoa ere handitu egiten da. Datu hauek AFIren baliotasun-seinaletzat balio dute, eta informazio estimulagarria aportatzen dute hezkuntzan esku hartzeko eta orientazio-programak diseinatzeko.

## 5. Erreferentziak

- Asci, F. H.; Asci, A. eta Zorba, E. (1999): "Cross-cultural validity and reliability of Physical Self-Perception Profile", *International Journal of Sport Psychology*, **30**, 399-406.
- Bakker, F. C. (1988): "Personality differences between young dancers and non-dancers", *Personality and Individual Differences*, **9 (1)**, 121-131.
- Biddle, S.; Page, A.; Ashford, B.; Jennings, D.; Brooke, R. eta Fox, K. (1993): "Assessment of children's physical self-perceptions", *International Journal of Adolescence and Youth*, **4**, 93-109.
- Bracken, B. A. (1992): *Multidimensional Self-Concept Scale*, Pro-Ed, Austin, TX.
- De Gracia, M.; Marcó, M.; Fernández, M. J. eta Juan, J. (1999): "Autoconcepto físico, modelo estético e imagen corporal en una muestra de adolescentes", *Psiquis*, **20 (1)**, 15-26.
- Esnaola, I. (2005): *Elaboración y validación del cuestionario Autokontzeptu Fisikoraren Itaunketa (AFI) de autoconcepto físico*, Tesi Doktorala, UPV/EHU, Leioa.
- Fox, K. R. (1988): The self-esteem complex and youth fitness, *Quest*, **40**, 230-246.
- , (1990): *The Physical Self-Perception Profile manual*, Northern Illinois University, Dekalb, IL.
- eta Corbin, C. B. (1989): "The Physical Self-Perception Profile: development and preliminary validation", *Journal of Sports & Exercise Psychology*, **11**, 408-430.
- Garduño, L. eta Ramírez, M. R. (2001): "Evaluación de la autoestima en una muestra de niños de primaria de escuelas públicas y privadas", *Revista de Investigación Educativa*, **19 (1)**, 183-198.
- Goñi, A. eta Zulaika, L. M. (2000): "Relationships between physical education classes and the enhancement of fifth grade pupils' self-concept", *Perceptual and Motor Skills*, **91**, 246-250.
- eta ———, (2001): "L'éducation physique á l'école et l'amélioration du concept de soi", *STAPS, Revue Internationale de l'Education Physique et du Sport*, **56**, 75-92.
- ; Palacios, S.; Zulaika, L. M. eta Ruiz de Azúa, S. (2002): *El autoconcepto físico de los escolares entre 10 y 14 años*, Versión del CY-PSPP, (Ikerketaxosten argitaratugabea).
- ; Ruiz de Azúa, S. eta Liberal, I. (2004): "Las propiedades psicométricas de un nuevo cuestionario para la medida del autoconcepto físico", *Revista de Psicología del Deporte*, **13 (2)**, 195-213.
- ; ———, eta Rodríguez, A. (2004): "Deporte y autoconcepto físico en la preadolescencia", *APUNTS. Educación Física y Deportes*, **77**, 18-24.
- Gutiérrez, M.; Moreno, J. A. eta Sicilia, A. (1999): "Medida del autoconcepto físico: una adaptación del PSPP de Fox (1990)", IV Congrès de les Ciències de l'Esport,

l'Educació Física y la Recreació, INEFC, Lleida.

- Hayes, S. D., Crocker, P. R. eta Kowalski, K. (1999): "Gender differences in physical self-perceptions, global self-esteem and physical activity: evaluation of physical self-perception profile model", *Journal of Sport Behaviour*, **22** (1), 1-14.
- Klomsten, A. T.; Skaalvik, E.M. eta Espnes, G. A. (2004): "Physical self-concept and sports: do gender differences still exist?", *Sex Roles*, **50**, 119-127.
- Marsh, H. W. (1986): "Global self-esteem: its relation to specific facets of self-concept and their importance", *Journal of Personality and Social Psychology*, **51** (6), 1224-1236.
- , (1997): "The measurement of physical self-concept: a construct validation approach", in K. R. Fox (Ed.), *The physical self. From motivation to well-being*, 27-58, Human Kinetics, Champaign.
- eta O'Neil, R. (1984): "Self Description Questionnaire III (SDQ III): The construct validity of multidimensional self-concept ratings by late-adolescents", *Journal of Educational Measurement*, **21**, 153-174.
- eta Shavelson, R. J. (1985): "Self-concept: Its multifaceted, hierarchical structure", *Educational Psychologist*, **20** (3), 107-123.
- ; Relich, J. D. eta Smith, I. D. (1983): "Self-concept: The construct validity of interpretations based upon the SDQ", *Journal of Personality and Social Psychology*, **45**, 173-187.
- ; Richards, G. E.; Johnson, S.; Roche, L. eta Redmayne, P. (1994): "Physical Self-Description Questionnaire: psychometric properties and a multitrait-multimethod analysis of relation to existing instruments", *Journal of Sport & Exercise Psychology*, **16**, 270-305.
- Moreno, Y. (1997): *Propiedades psicométricas del Perfil de Autopercepción Física (PSPP)*, Tesis Doctoral, Universidad de Valencia, Valencia.
- Page, A.; Ashford, B.; Fox, K. eta Biddle, S. (1993): "Evidence of cross-cultural validity for the Physical Self-Perception Profile", *Personal Individual Differences*, **14** (4), 585-590.
- Pastor, Y. (1998): *Estudio de la influencia del autoconcepto multidimensional sobre el estilo de vida saludable en la adolescencia media*, Tesis Doctoral, Universidad de Valencia, Valencia.
- Shavelson, R. J.; Hubner, J. J. eta Stanton, J. C. (1976): "Self concept: validation of construct interpretations", *Review of Educational Research*, **46**, 407-441.
- Sonstroem, R. J.; Speliotis, E. D. eta Fava, J. L. (1992): "Perceived Physical Competence in adults: an examination of the Physical Self-Perception Profile", *Journal of Sports & Exercise Psychology*, **14**, 207-221.
- Tomás, I. (1998): *Equivalencia psicométrica de una traducción del cuestionario de auto-concepto físico Physical Self-Description Questionnaire (PSDQ) al castellano*, Tesis Doctoral, Universidad de Valencia, Valencia.
- Whitehead, J. R. (1995): "A study of children's physical self-perceptions using an adapted Physical Self-Perception Profile Questionnaire", *Pediatric Exercise Science*, **7**, 132-151.